

## Herri kirol eta jokuetan

Iaz Usurbilen, Sagarrondotik 2004ko edizioan, Astigarragak herri kirol ordezkariak eraman ez bazuen ere, aurtengoarekin bete du konpromisoa eta bere goi-maila erakutsi du Urnietan egindako eskualdeko herrien arteko herri kirol eta jokuen probetan.

Astigarragako taldea eta ordezkariak oso gaztea dugu, eta ia partaide guztiak baserriko semeak ditugu. Era berean, taldea osatzeko ardurak, Goldea Herri Kirol Batzordeko Antton Irazustabarrena, eta bere semea Suharriren eskutik bideratu ziren.

Martxoaren 6an, igandez, Urnietako pilotalekua publikoz betea zelarik, herri bakoitzeko partaideen egin beharreko zortzi herri kirol eta joku ezberdinen tresneriak prestatu zituzten Sagarrondotik 2005eko elkarteko arduradunek.

Astigarragak, hasieratik aurreratu zituen beste herriak, Usurbil, Hernani eta Urnieta hain zuzen ere, eta bide batez, segituan narbamu zen Urnietarekin zegoen lehia. Azkenik, sokatira eta harri jasotze probetan Urnietakoek lortu zituzten puntuak irabazia eman zieten bertakoei, ondorioz, Astigarraga bigarren geldituz, baina zalantzarik gabe, hamasei herritarrek erakutsitakoarekin harro izan denok.



# OTIK '2005



## Herri kirol eta jokuetan

Herri kirol eta jokuen probak	ASTIGARRAGA	HERNANI	URNIETA	USURBIL
<b>SAGAR BILTZEA</b> 2 lagun (bat neska), 40 kilo sagar kizkiaz bildu, zaku batean sartu eta 25 metrora garraiatu.	3	0	4	2
<b>INGUDIA</b> Lagun bat, minutu batean 18 kiloko ingudea erabiliz, zeinek gehiago goiko txapa jo.	4	2	1	3
<b>HARRI JASOTZEA</b> Lagun bat, 70 kiloko bola harriarekin 3 minututan, zeinek altxaldi gehiago egin.	3	1	4	2
<b>GIZA PROBA</b> 2 lagun, gomazko gurpil bat kateekin tiraka, beste laguna gainean duela, 4 minututan zeinek plaza gehiago egin.	4	1	3	2
<b>TXINGAK</b> 2 lagun, 50 kiloko bi txinga, 3 minututan, zeinek plaza gehien egin	1	2	4	3
<b>ZAKU LASTERKETA</b> 3 lagun, 50 kiloko zakua, plazan alde batetik bestera eraman, lagun bakoitzak hiru aldiz joanetorria eginez.	2	1	4	3
<b>LOKOTXAK</b> 2 lagun (bat neska) 50 lokotx bi ilaretan jarrita, zeinek denbora gutxienean bildu.	3	1	4	2
<b>SOKATIRA</b> 8 lagun (bat neska) guztien pisua 650 kilokoa gehienez, eta goma gainean	2	3	4	1
<b>Puntu guztiak:</b>	<b>22</b>	<b>11</b>	<b>28</b>	<b>18</b>